

## IRAKASLEEN TESTIGANTZAK

Hezkuntzan lan egiten dugun pertsona talde bat gara, ikastetxeetan musukoaren erabileraren derrigortasunak dakarren kalteak direla eta Telegram-en talde bat sortu gendun. Bertan, prozesu hau ondo eramateko beharrezkoa dugun indarra eta animoa aurkitzen dugu, baita gure zalantzak argitu, ezagutzak partekatu eta bakoitzaren prozesu legalen nondik norakoetaz hitz egin.

Gure artean gurasoak ere badaude, aita eta ama bat hain zuzen, beraien alabek muxukoaren erabileraren derrigortasunak dakarkien kalteak direla eta.

Gutariko batzuk diziplina-espedienteak irekita ditugu, zigorrak ezarrita baita kasu batzutan eta hori dela eta gure kasuak abokatuen eskuetan jarri ditugu.

---

Filosofia eta etika irakaslea naiz bigarren hezkuntzan. Salbuespen egoera hau institutuan protokoloz eraman behar genuenean nire nahia besteekin hitz egitea zen, elkarrizketa sortu, niretzat erabat kuestionagarriak ziren arauak betetzea erabateko distopia iruditzen zitzaidalako. Arnasbideak oztopatzea, elkar ukitzearen beldurra, hidrojelak behin eta berriro erabili beharra, eztabaidarik gabe hedatu ziren biologia oinarri okerrak, dena aldrebes zegoen eta inork ez zuen eztabaidatzen, are gehiago ikuskariak debekatu zidan nire ideiak hedatzea, institutuan bilerak eta eztabaidatzeko deiarik egitea. Nazkatuta guztiz, egun batean musukorik gabe institutuan aurkeztu nintzen esanez nik ez nituela neurri horiek onartzen, eta musukorik ez nuela jantzi behar. Hura eskandalua! Ikuskariak ertzaina bidaliko zidala esaten zidan telefonoz. Honengatik hezkuntza barruko epaiketa egin zidaten eta lau hilabeteko zigorra ezarri lan eta soldatarik gabe. Errekurrizkeko daukat. Orain askok onartzen dute lehen nik oso argi neukan iritzia, musukoak intentsitate gutxiko tortura zitala dela. 21-22 ikasturtean beste institutu batean hasi nintzen eta sentsubako protokoloei kritika agerian egiten nien, nire klaseetan giza eskubideak eta sen kritikoa lantzen ditugunez klasean hitz egiten dugunagatik gurasoren batek beren kexak eta desadostasuna azaltzen ditu, zentsura izaten dut baina nire aukera aurten nerabeekin egotekoa izan da, eztabaida espazio bat izan dezaten.

*Teresa*

---

2019-2020 kurtsoan ebakuntza bat dela eta bajaran harrapatu ninduen musukoaren erabileraren derrigortasunak ikastetxeetan .

Hurrengo kurtsoan, 2020-2021, institutuko zuzendaritzan txosten mediku bat aurkeztu nuen, idazki hau kabezerako mediku titularren ordezkioak egin zidan kontsulta telefoniko baten ostean, hizketaldi horretan musukoak eragiten didan kalteak azaldu eta zerrendatu nizkion.

Lehenengo unetik nabariak izan ziren Osakidetzako medikuen aitzakiak musukoak osasunean eragiten didan kalteak idatziz onartzerako orduan.

Aurrerago Osakidetzako bi medikuk aitortu zidaten musukoaren erabileraren salbuespen egiaztagiririk egiteko baimenik ez zutela, bai Osakidetza eta bai Medikuko Kontseiluaren aginduak jarraituz.

Martxorarte iraun nuen egoera horretan eta nire osasunaren okerragotzeak baja hartzera behartu ninduen.

Ordurarte egoera aldatzeko ez zidatenez konponbiderik aurkezten sudur azpitik jaitsita izaten nuen musukoa ahal nuen heinean.

Hilabete horietan hainbat mail partekatu nituen zuzendaritzako kideekin, lankideekin, lan-arriskuen prebentziorako zerbitzuko medikuekin eta baita Osakidetzako dagokidan anbulatorioko medikuekin ere.

Mezu horietan musukoaren inguruko ikerketa zientifiko pilo bat bidali nizkien, hauetan agerian jartzen zen honen erabilerak dakarren kaltea osasunean eta birusen kontrako babes ezaren egiaztapena.

Ez nuen jaso kontrako argudio garau bat bera ere, ezta medikuen aldetik ezta inoren aldetik, esanguratsua iruditzen zait.

Lan-arriskuen prebentziorako zerbitzuko medikuei, hiru lau aldiz gogorarazi nien beraien erantzukizuna dela langileei ohartaraztea musukoaren erabilerak osasunari dakarkion kalteak.

Aitzakiak eta ihesbideak bakarrik jaso nituen, gogaiturik egoerataz nik neuk partekatu nuen lankideekin kalte hauen zerrenda, lankide bakar batek erantzun zidan bidalitako mezura, esanguratsua ere lankideen jarrera.

Kurtso berria hasi aurretik, 2021-2022, Bilboko abokatu batzuk eraikuntzen barnealdean lege aldaketa baten ondorioz musukorik gabe lan egin daitekela esaten didate, irizpide batzuk kontuan hartuz.

Abokatuek zuzendaritzara gutun bat eta mediku ziurtagiri bat bidaltzen dute, legearen arabera musuko gabe lan egiteko eskubidea dudala argi utziz.

Salbuespen ziurtagiri hau Osakidetzako mediku batek egin zidan, bere bihotz ona eta adorea estamentuen aginteen gaineratik jarriz .

Bi asteko tartea eman eta aurretiaz abisua eman eta gero astelehen baten musukorik gabe aurkeztu nintzen institutuan, hezkuntzako ikuskari bat eta zuzendaritzako kideak niri zai zeuden jada.

Bilera tirabiratsua izan zen, beraiek hezkuntzako protokoloak musukorik gabe lan egiteak ez zuela baimentzen esan zidaten eta nik legeak baimentzen ninduela argudiatu nuen, hierarkia normatiboa beraiei gogoraraziz.

Adostasunik ez zenez egon Ertzaintzari deitu zioten eta beraiekin batera zentrutik atera nintzen .

4 egunetan jarraian egoera bera pairatu ostean abokatuek eskutitz bat bidali zuten zuzendaritzara ez nintzela aurkeztuko lanera koakzioak amaitu arte esanez .

Ertzainek eurek ere isunak hasiko zirela jartzen esan zidaten jarrera berberarekin jarraitzen banuen.

Azkenean Hezkuntzak 5 hilabeteko zigorra jarri dit, lanaldi eta soldataren etenaldia eta hezkuntza bereziko zerrendetatik kanporatzea, errekurtsioa jarriko dugu epaitegian.

Prozesu honetan sentitzen den bakardadea Bizitza, Liberum, Scabelum, Médicos y Biólogos por la verdad etabarretako elkarteek laguntzari esker errazago eramaten da, nire esker ona adierazi nahi diet guztiei, lan izugarria ari dira egiten.

Testigantza honekin batera hemen doa nire omenaldi pertsonala, beraiei eta nire egoera berean dauden lankideei eskeinia.

Eskerrik asko bihotz bihotzez.

*Oscar Uribarri Astuy*

---

### **MASKARA ERAMAN BEHARRA**

2020/2021 ikasturtean nirea den lanpostuan ari nintzen klasea ematen, Zizur BHI; hots, Nafar Gobernuaren Hezkuntza Departamentuaren eskumeneko ikastetxean. Araudiak *agintzen* duen bezala, sudurra eta ahoa estaltzen dituen maskara jantzen dut, ikastetxean berean ematen diguten oihal zuridun maskara (bost ale irakasle bakoitzarendako).

Adierazi behar dut Lengua eta Literatura erakusten dudala; hortaz, poesia, ahozko azalpen luzeak, irakurketak eta abar ozenki egin behar izaten ditudala, eta horrekin loturik dagoen guztia hartu behar da kontuan: ahotsa proiektatu, melodia-kurba kontrolatu eta zuzendu, ahotsa inpostatu, bolumena kontrolatu eta modulatu, haizea modu kontzientean hartu esandako guztia ongi burutu dadin... Horretaz gain, aurpegiaren adierazkortasuna ongi erabili behar dut antzerki lanak lantzen ari naizenerako edota poesiarako eta abar.

Horretan ari naizela, klaseak maskara jantzirik dudala emateak osasuna kaltetzen didala ohartzen hasten naiz; izan ere, haizea falta zait arnasa hartzen dudana bakoitzean, eta zorabiatu egiten naiz. Orobat, urdaila nahasi egiten zait eta goragalea hasten zait.

Sintoma horiek klase guztietan agertzen zaizkit eta behin eta berriz errepikatzen. Ikastetxean nagoela, buruko minez eta zorabiatu egoten naiz. Emozionalki ere ahultzen hasten naiz, negar egiteko gogoz eta triste.

Sintoma horiek denak, alabaina, etxera iritsi ondoren eta musukoa kendu orduko desagertu egiten dira.

Apirilean, uztailaren 15eko 34/2020 Foru Aginduak babesten duen erantzukizuneko aitortpena egiten dut, maskararen erabileraz salbuesteko. Hala ere, maskara jantzita izaten dut, baina sudurraren azpitik. Sintomak zertxobait hobetzen dira.

2021/2022ko ikasturtearen hasieran kirurgia-maskara eraman behar dugula esaten digute. Araudia betetzen hasten naiz. Berriz ere goragalea eta zorabioak.

Egoerak makurrera egiten duela ikusirik, araudiak maskara erabiltzeko salbuespenik jasotzen ote duen begiratzen hasten naiz, eta, badagoenez, abuztuaren 28ko 40/2020 Foru Aginduan jasotzen den salbuespena aintzat hartu eta erregistratzen dut adiskide abokatu baten laguntzaz. Bere 8. puntuak bi arrazoi jasotzen ditu maskaraz salbuesteko:

- a) osasun arrazoiak: arnasteko zailtasuna... (ez da mediku txostenik eta deus ere aurkeztu behar; datuen babesa urratuko litzatekeelako bestela, eta hori delitua litzateke beraien - hezkuntzakoen- partetik).

-b) gure jardunarekin bateraezina baldin bada, betiere 1,5 metroko distantzia gordetzen bada.

Hori dena erregistratu aurretik eta prozesu bitartean zuzendariaren jazarpena nabarmentzen hasten da. Berehala bi ikuskari hasten dira jazarpena egiten.

Jazarpenezko egoerak aipatuko ditut: klase ordutegitik kanpo etxera deiak hurrengo egunean zuzendariarekin hitz egiteko ordua emanez; abisatu gabeko *bisitak* ikastetxera ikuskarien partetik; zaintza egiten ari naizen gelatik bortizki kanporatzea ikasleen aurrean eta ikasleei zer gertatzen den azaltzeko aukerarik eman gabe; ebaluazio saioetan zuzendaria nire ondoan eseri maskara ongi jartzeko esanez etengabe; zuzendariak niri baja hartzeko esan...

Une oro Nafar Gobernuaren araudiak babesten nauela errepikatzen diet eta haien zenbait *bisita* audioz grabatu.

Diziplina espedienteari hasiera ematen diote. Jazarpenak, hala ere, gertatu egiten dira eta espedienteak irekita dagoela (beraz, idazkaria eta izapidegilea izendaturik daude eta beraiei dagokie prozesua aurrera eramatea), ikuskari batek dokumentu bat sinatzera behartzen nau. Nik ez baitut batere ulertzen, prozeduraren zein atalari dagokion galdegiten diot, eta abokatuari dei egin behar diodala esan. Orduan dokumentua hartu eta bakarrik uzten nau gelan. Egun horretan, berean, klaseak bukatu ondoren, zuzendaria eta zuzendariordea agertzen zaizkit eta nota koadernoan emateko agintzen dit zuzendariak, nire lanpostua ordezkotz bati eman behar diotela esanez. Ez diot koadernorik ematen eta alde egiten dut. Igande gauean guk erabiltzen dugun *Educa* barne postan, asteleheneko nire klaseak ikastetxeko zenbait irakasleri eman dizkietela ikusten dut.

Sei hilabeteko lan etenaldia inposatu didate diziplina-espedientearen izapidea egin gabe zegoela. Bertan zehaztu egiten da zer soldata kontzeptu ordainduko didaten (hortaz, ez dudala soldata osoa kobratuko ondorioztatzen dut).

Espedienteen izapideak (bi) lan etenaldian nagoela hasten dira. Hilabetero nire betiko soldata jasotzen ari naiz.

Ondorioa:

Egia, garaipena eta geroa nireak dira.

(Barkatu, gureak).

*Leire Zabaltza*

---

### **Nire esperientzia eskolako Zuzendaritza eta Hezkuntza Sailarekin maskaren inguruan**

Ikasturte hasieran, 2021eko irailaren 1ean, eskolako Zuzendaritzakoei daukadan exentzio ziurtagiria erakusten diet, mediku pribatu batek egina, Osakidetzan ez bait didate bat egin nahi. Nire familia medikuak esaten dit Sendagileen Elkargotik agindua daukatela inori exentziorik ez emateko.

Irailaren 1eko lehenengo ordu erdian Zuzendaritzak ez dit inolako arazorik jartzen. Baina ordu erdi hori eta gero Ikuskaritzatik esaten diote Zuzendaritzari ziurtagiri horrek ez duela balio eta harrezkeroztik, nire eskubideak defendatzeko borroka batean nabil.

- Lehenengo astean nire maskararekin egoten uzten didate, sudur azpitik. Umeak eskolan hasten diren egunean maskara kentzea erabakitzen det, ezin baitet klasea eman eta ondo arnastu, ahoa estalita daukadala. Zuzendaritzak, hori ikusita, maskara jartzeko agindua ematen dit, eta egin ezean Ertzaintzari deituko diotela esaten didate. Egun horretan bertan baja eskatzen det eta medikuak ematen dit, baina Mediku Ikuskaritzak bi asteetara alta ematen dit eta eskolara itzuli behar naiz.
- Itzultzen naizen egunean Zuzendaritzak berriz ere baja eskatzeko gomendatzen

dit. Hala egiten det eta medikuak ematen dit. Baina 5 egunetara mediku honek deitzen dit esanez Mediku Ikuskaritzak baja hori anulatu duela. Ikuskaritzak alta ematen dionean norbaiti, hurrengo 6 hilabeteetan familia medikuek ezin diote arrazoi berdinagatik bajarik eman. Familia mediku honek, antza denez, ez zekien hau. Hau dela eta, 5 egunez absentismo faltak egiten ditut, nik jakin gabe.

- Eskolara itzultzen naiz baina nire ordezkoa han dagoela esaten didate. Delegaritzara deitzen det eta beren sisteman baja egoeran agertzen naizela esaten didate. Gomendatzen didate Mediku Ikuskaritzari eskatzeko Delegaritzara deitzea edo idaztea ni altan nagoela demostratzeko. Mediku Ikuskaritzan esaten didate beraiek horrelakorik ez dutela egingo. Ordu batzuetan “limbo”an aurkitzen naiz. Arratsalde horretan Delegaritzatik deitzen didate esateko nire egoera zuzendu dela eta beraz hurrengo egunean lanera itzultzeko.
- Hurrengo egunean eskolara irixten naizenean, maskararik gabe, Zuzendaritzak Ertzaintzari deitzen dio. Ertzainak eskolara joaten dira, datuak hartzen dizkirate eta eskolatik ateratzeko eskatzen didate. Hala egiten det. Hurrengo bi egunetan gauza bera gertatzen da eta hiru egun horiek eta gero, nire abokatuak esaten dit ez dela beharrezkoa eskolara gehiago joatea, nire lanpostua nahikoa defendatu detela eta argi geratzen dela Zuzendaritzak eta Hezkuntza Ikuskaritzak egiten didaten akosoa.
- Urriaren 8an Hezkuntza Ikuskaritzak diziplina-espeditentea irekitzen dit, honako bi kargu hauengatik: 1) “Nagusiek emandako aginduak ez betetzeagatik” eta 2) “funtzionarioen betebeharrak eta obligazioak ez betetzeagatik”. Halaber, urriaren 11n nik jartzen diot denuntzia Hezkuntza Ikuskaritzari, laneko jazarpenagatik.
- Denbora batez, Administrazioak hainbat idazki bidaltzen dizkit eta nik hauei alegazioak egiten dizkiet (bat ere ez dute onartzen), azkenean abenduaren 22an ebazpen proposamen bat bidaltzen didaten arte, non 6 hilabeteko eginkizun-

etenaldiko zehapena proposatzen den.

- Zigor proposamen horren aurka alegazioak bidaltzen ditut urtea amaitu baino lehen. Ez daukat ez alegazioei erantzunik ezta Administrazioaren berririk otsailaren 15era arte. Egun horretan email eta dei baten bitartez jakinarazten didate zigorra azkenean 4 hilabetekoa izan dela eta epe hori egun horretan bertan betetzen dela, otsailaren 15ean, beraz hurrengo egunean nire lanpostuan agertu behar naizela eta bertan nire eskolako erreferentziako ikuskariak eskuan emango didala ebazpena.
- Ebazpena jasotzera maskara sudur azpitik daramadala agertzen naiz eta segituan ikuskariak esaten dit sudurra estali behar detela. Bertan eskolako ikasketa burua eta 3. mailako tutorea daude baita ere. Ikuskariari esaten diot sudurra estaliz gero ezingo detela ondo arnastu, baina berdin zaiola esaten du, eta barrukaldean maskara ondo jantzita eraman behar detela. Berak esan bezala egiten det, maskarak niregan daukan eragina ikus dezaten. Segundutara antsiedade krisia ematen dit eta kalera ateratzen naiz arnasaldia normalizatzen zaidan arte. Gelara itzultzen naizenean, ikuskariak maskara jartzeko eskatzen dit berriro. Oraingoan gainera esaten dit nire maskarak ez duela balio eta gutxienez kirurgiko bat jantzi behar detela. Esaten diot ikusi duela niregan duen eragina, baina insistitzen du. Berak esan bezala egiten det, ebazpena jaso ahal izateko, baina segundu gutxira berriro ematen dit antsiedade krisia. Kanpora ateratzen naiz arnasaldia normalizatu arte, eta barrura itzultzen naizenean, ikuskariak berriro eskatzen dit maskara jartzeko. Oraingoan ezetz esaten diot, nire osasuna zaindu behar detela, beraiek ez baitute egiten. Onartzen du, gogoraraziz berak esan didala barrukaldean maskara jarri behar detela eta uzten didala gabe egoten fabore berezi bezala, leihoak irekita daudelako eta segurtasun distantzia mantentzea posible zaigulako lauroi.
- Ebazpena jaso eta gero, 3. mailakoei klasea ematera noa. Beraien tutorea nirekin sartzen da. Maskara jarri eta segundu gutxira 3. aldiz antsiedade krisia ematen



dit, oraingoan umeen aurrean. Tutoreak ateratzeko esaten dit eta hor, ikusita nire zeregina aurrera eramatea ez dela posible, etxera joatea erabakitzen det eta tutoreari esaten diot Mediku Ikuskariari baja eskatuko diodala berriro. Esperantzarik ez daukat baina ez dakit zer gehiago egin eta saiatzea erabakitzen det.

- Otsailaren 21ean irailan alta eman zidan Mediku Ikuskariarekin daukat hitzordua. Sorpresa hartzen det baja ematen baitit. Langileak bere enplegataileari denuntzia jarri dionean, bajaranako arazorik ez dutela jartzen esaten dit.
- Momentu hontan, Hezkuntza Sailburuari ebazpen honen aurka berraztertze errekurtsua aurkeztu diot, legeari begira, beraiek aurkezten dituzten argudioak baliogabetzen baitira, ni eta nire abokatuaren ustean.
- Hau dena hasi zenetik eta gaur arte, Laneko Arriskuen Prebentzio Zerbitzuetako mediku bat ere ez da nirekin elkartu mediku azterketa bat egiteko.

Nire egoera honi konponbide bat bilatu beharrea, eta segurtasunez lan egiteko nire eskubidea bermatzeko lan egin beharrea, prozesu osoan zehar nabaritu det Hezkuntza Ikuskaritzatik ni zigortzeko holako behar bat.

Izugarri eskertzen dizuet gure esperientziak entzuteagatik eta jendeari zabaltzeagatik.

*Olatz Zubizarreta*